

**2024KO MAIATZAREN 10EKO 276. ALKATETZAKO DEKRETUA**

IKUSIRIK: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak (KONTSEILUA) euskararen aldeko borondatezko gizarte-konpromisoa sustatzeko eta hizkuntzaren erabilera sektore guztietara zabaltzeko helburuarekin egiten du lan.

GERTUA IZANIK: Kontseiluaren eginkizun edo misioa gizarte-eragileak, eragile politiko-instituzionalak eta euskalgintzako eragileak, bakoitzak bere esku dituen neurri normalizatzailerak hartzera gonbidatzea da, Barrundian, Araban eta Euskal Herri osoan, maila pertsonal, sozial eta ofizialean, euskararen berreskuratze-prozesuan aldaketa kualitatiboa lortzeko.

Euskararen gizarte-erakundeek elkarrekin indarrak bilduta, euskararen normalizazio-bidean prozesu eragingarria abiatzea, lantzea eta bermatzea da xedea, Euskal Herriko arlo sozio-politikoan, ekonomikoan eta kulturean.

GERTUA IZANIK: Lan-eremu desberdinetan diharduten eta Barrundian hedadura zabalekoak diren askotariko elkarte-bazkidek osatzen dute Kontseilua, euskarak garapen osoa izateko xedea batuta.

GERTUA IZANIK: Barrundia osatzen duten herrietan eta Araban euskararen inguruan lanean ari diren gizarte-erakundeek osatzen duten egitura artikulatzeko proposamen teknikoa garatu du Kontseiluak 2024an.

GERTUA IZANIK: Euskararen normalizazio-prozesuan, edozein hizkuntzarenean bezalaxe, funtsezko funtzioa betetzen duten herritarrak ahalduzko erremintak inplementatu dira.

GERTUA IZANIK: Kontseiluak euskalgintzatik aparteko eragile eta norbanakoen inplikazioa bilatu du.

GERTUA IZANIK: Kontseiluak hizkuntza-politika egokiak garabidean jartzeko harremanak izan ditu administrazioekin.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- KONTSEILUA erakundeari aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 600,00 eurotako diru laguntza onartzea (2024ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.003 partida).

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako diru laguntza berehala ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau KONTSEILUA erakundeari jakinaraztea.

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotia.araba.eus/barrundia/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA>
h0144708b02c0a134c907e810c050a189



Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzaila / Secretario Interventor	10/05/2024 09:13
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	10/05/2024 09:18



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>
h0144708b02c0a134c907e810c050a189

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK,

IDAZKARIAK,

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	10/05/2024 09:13
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	10/05/2024 09:18